

HAUR HEZKUNTZA INKLUSIBOA I JARDUNALDIAK ARRETA GOIZTIARRA

2012ko urriaren 22 eta 30an lehenengo jardunaldiak egin ditu ADARRAk Bilbon.



Urriak 22 arratsaldean **Vicenç Arnaiz** psikologoak bi hitzaldi eman zituen. Lehenengoan, hezkuntza jarduerari buruz mintzatu zen eta, bigarrenean, Menorkan gurasoentzat dituzten hezkuntza zerbitzuak aurkeztu zituen. Saioan ere galderetarako eta iritzi trukerako tartea egon zen. Hitzaldi horietara 100 pertsona baino gehiago etorri ziren eta, egoitzaren ezaugarriak direla medio, batzuk, tamalez, kanpoan geratu behar izan ziren. Honako egoera

aurreikusita, lehenengo hitzaldia grabatu genuen eta eskuragarri dago www.adarra.org webgunean.

Urriak 30ean hiru hitzaldi eman zituzten eremu desberdinako irakasleek.

Lehenengoan, **Ramón Muñoz** pedagogoak arreta goiztiarraren egoera aurkeztu zuen. Oso interesgarria izan zen Euskadi Autonomia Erkidegoan gaia kokatzea eta argitaratuta dauden zenbait txosten ezagutzea. Ramonek azpimarratu zuen langile desberdinen arteko koordinazioaren garrantzia, hau da, bai hezkuntzan zein osasunean eta giza lanetan gabiltzanon elkar-lana.



Bigarren hitzaldian, Lekeitiotik etorritako irakasleak aritu ziren. Alde batetik Lekeitioko eskola zuzentzen duen **Xabier Iturbe** eta, bestetik, Lekeitioko Haurreskolako **Idoia Apraiz**. Azken bi urtean egindako lana aurkeztu zuten. Adarrak kudeatuta, prestakuntza sakona egin dute Lea-Artibai zonaldeko heitzaleekin batera. Horren ondorioz, zenbait aldaketa bultzatu dituzte haurreskoletan eta edukiak aldizkari batetan bildu dituzte.



Hirugarren hitzaldian, Maiztegi LHI eskolako irakasleak diren **Ane Miren Uribe** eta **Arantza Zugazaga** aritu ziren.

Inklusibilitatearen garrantziaz sakontzeko asmoz, 5 urteko geletan duten esperientzia aurkeztu zuten. Zehazki talde elkarreragileak (talde interaktiboak deritzona) funtzionamendua azaldu zuten eta bideo oso argia eta bizia jarri zuten.



Hitzaldieie esker, arreta goiztiarrari buruz hausnartu dugu, zenbait txosten ezagutu dugu eta esperientzia konpartitu dugu. Esperientziak gainera, lehenengo zein bigarren ziklokoak izan dira, oso aberasgarriak denontzat.

Bi arratsalde horietan banatu diren karpetetan ondorengo materialak zeuden:

- Vicenç Arnaizen argitalpenen erreferentzia.
- Haur hezkuntza inklusiboari buruzko bibliografia eta Ramonek aipatutako txostenaren esteka (Arreta goiztiarra Markoa EAEn)
- Lea-Altibai haurreskoletan egindako aldizkaria.
- Apirilean egingo ditugun jardunaldien egitaraua.

Kontuan izan behar dugu gaia hasita dagoela eta, lehenengo honetan arreta goiztiarrari buruz aritu garen bezala, apirilean inklusibilitatea aztertuko dugu “partaidetza” eta “ikasketak” gaien ikuspuntutik.

EDUCACIÓN INFANTIL INCLUSIVA I. ATENCIÓN TEMPRANA

Los días 22 y 30 de octubre de 2012 se han celebrado las primeras jornadas de este curso organizadas por ADARRA en Bilbao.

El 22 de octubre, a partir de las 17:00 el psicólogo Vicenç Arnaiz impartió dos conferencias. En la primera, expuso planteamientos y experiencias concretas sobre detección, evaluación y apoyo educativo ante las dificultades en 0-6. Vicenç Arnaiz es experto en la respuesta a las necesidades de la primera infancia y articuló una conferencia a partir de las ideas extendidas pero erróneas que debemos evitar. En su segunda conferencia, tras un tiempo para las preguntas y el intercambio de opiniones, expuso los recursos que funcionan en Menorca dirigidos a familiares con hijas e hijos menores de 3 años. En las conferencias estuvieron presentes más de 100 personas y, lamentablemente, algunas no pudieron entrar por cuestiones de aforo. La primera conferencia está grabada y disponible en la dirección www.adarra.org

En la segunda sesión de estas jornadas se impartieron tres charlas.

En la primera charla, El pedagogo Ramón Muñoz expuso la situación y el marco de la atención temprana en nuestra Comunidad Autónoma. Con su exposición, ubicó el tema en un contexto próximo y citó varios documentos que están consensuados entre diversas administraciones y en proceso de implantación. Subrayó la importancia del trabajo coordinado entre diferentes profesionales de la educación, la sanidad y el trabajo social.

En la segunda charla, Xabier Iturbe (director de la escuela de Lekeitio) e Idoia Apraiz (de la Haurreskola de Lekeitio) nos mostraron su trabajo de los últimos dos años. Con la gestión de Adarra, un gran equipo formado por educadoras de la zona de Lea –Artibai se ha reunido hasta definirse como comunidades de aprendizaje. Tras una fase de estudio, han establecido las prioridades en cada una de las Haurreskolak y en todas ellas la respuesta a la diversidad tiene gran importancia. Para conocer mejor el trabajo realizado, en las jornadas se repartió una alegre y sustanciosa revista recién elaborada.

La tercera charla la impartieron Ane Miren Uribe y Arantza Zugazaga, profesoras de Maiztegi LHI. Para subrayar la importancia de la inclusividad en sus aulas, nos presentaron la experiencia que realizan con frecuencia semanal en el aula de cinco años. Además de los contenidos presentados por las profesoras, nos mostraron un vídeo en el que las propias niñas y niños, así como las madres y otras profesoras que participan como voluntarias en las sesiones, nos explican lo que son para ellos los “grupos interactivos”.

Todas las ideas y experiencias expuestas nos han servido para reflexionar sobre la atención temprana, para conocer algunas publicaciones y para intercambiar experiencias. Además, por medio de las experiencias, hemos podido acercarnos a realidades tanto del primer ciclo como del segundo, lo que es enriquecedor para todas las personas participantes en las jornadas.

En las carpetas que se repartieron en estas primeras jornadas, se incluían los siguientes materiales:

- Reseñas de algunas publicaciones de Vicenç Arnaiz.
- Bibliografía sobre algunos contenidos de Educación Infantil inclusiva y el enlace del documento “Marco” citado por Ramón.
- La revista publicada por las Haurreskolak de Lea-Artibai.
- Programa de las jornadas que realizaremos en abril.

Con estas primeras jornadas el tema ha quedado planteado desde la perspectiva de Atención Temprana. En la segunda convocatoria, en abril, profundizaremos en el planteamiento inclusivo y nos centraremos más en la participación y en los aprendizajes.



adarraerakundea@gmail.com